ASTEKARIA - 2012ko otsailaren 17an - XVI. urtea - Usurbil, 479. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua !!



Victor Gonzalez
arrantzan, onenen artean




# Heldu da Inauteri garaia, mozorroa jantzi eta kalera irteteko garaia



LASER DIODO IRAUNKORRA
LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN
Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:
EMAKUMEETAN:
Hanka osoak 149€ sesioa (%74ko deskontua barne)
Hanka erdiak 99€ sesioa (%69ko deskontua barne)
Besoak 119€ sesioa (%60ko deskontua barne)
Besaurreak 99€ sesioa (%58ko deskontua barne)
Ingleak (bikini) + besapeak 89€ sesioa (%62ko deskontua barne)
Ingleak (Pubisa edo Brasildarra) + besapeak 99€ sesioa (%63ko deskontua barne)
Kokotsa + ezpaina 39€ sesioa (%64ko deskontua barne
GIZONETAN:
Sorbalda 149€ sesioa (%70eko deskontua barne)
Sabelaldea + toraxa 189€ sesioa (%62ko deskontua barne)
Hanka osoak 189€ sesioa (%73ko deskontua barne)
Hanka erdiak 119€ sesioa (%69ko deskontua barne)
Besoak 139€ sesioa (%61eko deskontua barne)
Besaurreak 119€ sesioa (%58ko deskontua barne)
INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA
Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)
Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu




Usurbil
INAUTERIAK 2012
OTSAILAK 18
MITOLOGIA
Mozorrotu eta atera kalera!
12:30 ZUMARTXAN txaranga
16:00 ILARGI-EGUZKI Inauteri festa Gaztelekuan
18:00 BURRUNBAZALE txaranga
21:00 Olarrondon afaria 15€
(txartelak aldez aurretik, Noaua!n, Irratin eta Txiribogan)
KONTZERTUA:
Zumarte-txiki eta Zumarte Abesbatza
Otsailak 21, asteartea 18:00 SUTEGI
Noaua!
www.noaua.com

Albistea iruditan!!

# Sektore publikoko murrizketen aurkako mobilizazioa

**ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, sektore publikoan aplikatu nahi diren murrizketen aurka lau orduko lan uztea burutu zen otsailaren 9an. Usurbilen ere eragina izan zuen.**

Udarregi Ikastola edota Usurbilgo Udaleko langile eta Bilduko hautetsiek lan uztearekin bat egin zuten. Greba deialdia nabaritu zen baita, anbulatorioan edota gutxieneko zerbitzuak eskaini zituen EuskoTrenen ere. Ondoko irudian, udal langileek goiz erdian udaletxe aurrean burutu zuten elkarretaratzea, “zerbitzu publikoak garatu, murrizketarik ez” lemapean. Eguerdi partean, manifestaldi bana burutu zen Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Larunbatean bestalde, Alternatibak, Aralarrek, Eusko Alkartasunak eta Ezker Abertzaleak deituta, eraldaketa sozialaren aldeko manifestaldi bana burutu zen hiriburuetan.



UDAL LANGILEAK ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN UDALETXE AURREAN.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 570 999 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

# Maliko bueltak

Batzuetan gertatzen da, auskalo zergatik baina denoi gertatu zaigu noizbait: bat-batean gertaeraz, pertsona batez edota egin zenuen gauza horretaz oroitzen zarela. Eta niri gertatu zait. Maliko bidaia hartaz akordatu naiz. Egun hauetan sei urte betetzen dira, baina nik ez nekien, Usurbilgo lagun batek gogorarazi dit. Kasualitatez, aurretik elkar ezagutu gabe, bakoitza bere aldetik Malira bidaia egin behar genuela berri izan genuen. Patuak bidaiaren inpresioak eta sentsazioak gero elkarrekin konpartitzeko aukera ederra eman zigun.

Afrika beltzera joan nintzen lehen aldia izan zen hura. Bidaia aberatsa izan zen. Maliko Salif Keita, Amadou et Marien eta zenbait kantarien musika ezagutzeko aukera eduki nuen. Futbol estadio batean sartu eta 25.000 afrikarrekin batera Tiken Jah Fakolyren abeslariaren kontzertu batez disfrutatzeko oparia jaso nuen,… 25.000 pertsona batera mugitzen eta kantatzen, hura kemena!

Orain bezala, Afrikako futbol txapelketa jokoan zen, eta sinpatiaz erreparatzen genituen kalean hogei bat laguneko talde haiek nola telebista baten aurrean partidak ikusten zituztela.

Maliko kapitala Bamako da. Nahiz eta txirotasuna handia izan, diru eske ez zitzaigun inor gerturatu. Kontrakoa, laguntza eskaintzera baizik. Kaletik paseatzen aritzen ginenean jendeak agurtzen zigun, gure "epa" antzeko batekin. Gertutasuna, segurtasuna eta alaitasuna hiriburu harengan gelditu zitzaizkidan inpresioak dira.

Bamakotik atera eta Maliko beste herriak ezagutzeko unea hartu genuen: Djenne, Mopti, Pais Dogon,… Historia, sinismen naturalak eta egunerokotasuna nola uztartzen ziren lekukoak izan ginen. Sakontasun eta lasaitasun sentsazioak ekarri nituen lurralde haietatik.

Orduan, Afrikako herri honek pairatzen dituzten bidegabekeriak eta desberdintasun sozialak gainditzeko mugimendua berritzen ari zela zirudien. Hau dela eta egun haietan Munduko Gizarte Foroa bertan ospatu zen, esperientzia hau bertatik ezagutzeko eta, posible balitz, bultzada eman ziezaiola.

Bertako biztanleek adierazi zidaten kezka bakarrarekin bueltatu nintzen: fundamentalismo islamikoa zabaltzeko arriskua zegoela zioten.

Eta orain, sei urte pasa direnean, Magrebeko Al Qaedak Malin gotorlekua eraiki duela dirudi. Malitik atera baitziren Tindoufeko saharar kanpamentuetan hiru kooperante bahitu zituztenak. Egun, Malin turisten bahiketak arazo larria bihurtu baita. Baina dudarik gabe, egoera honetan, bertako biztanleak bizipen larrienak jasango dituztenak izango dira.

Orain, Malira kezkaz begiratzen dut ere bai. Galdera asko sortzen zaizkit. Nola egongo ote dira fundamentalismoa eragotzi nahi zuten pertsona haiek? Eta, noren laguntzarekin zabaldu da fundamentalismoa?

Kezkaz, amorruz, ikusten dut nola herrietako edota gizarteko lorpen sozialetan atzerakadak egon daitezkeen. Eta gure gizartean ere bai, atzerakada horiek egon daitezkeela gero eta kontzienteago naiz. Krisiek, edonon, aukera ederra ematen baitute gauza askotarako.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Joxe Piñas** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# Hotzari aurre eginez, lagun ugari Uzturrera egindako irteeran

Egunsentiaren 7:30etan -5º C Usurbilgo kaleetan. Hala ere 32 mendizale Amasara abiatu ziren igandean Uzturreko gailurrera igotzeko asmoz. "Bakoitzak bere erritmoari eutsiz, Belabieta eta Uzturre gainditu ditugu, Troska errekatik Amasara itzuli aurretik. Goiz pasa freskoa eta ederra lagun artean igaro duguna". Argazkian dira partehartzaileak.



# Oiardo Kiroldegian, belaunaldien arteko topaketa

**Ezohiko argazkia atera zitekeen, otsailaren 8an Oiardo Kiroldegian. Eskubaloi partidak jokatzen diren pista, belaunaldi desberdinetako herritarren topagunean bilakatu zen. Udarregi Ikastolaren iniziatibaz, hainbat joko eta jolasetan parte hartzen aritu ziren, Gure Pakea elkarteko kideak eta DBH 4.mailako ikasleak.**

Petankan; 1,2,3 eta kolorez blai izeneko jokoetan; hiruko lerroan… Helduek eta gazteek ezin hobeto igaro zuten otsailaren 8ko goiza. Joko hauetan eta beste batzuen inguruan parte hartzen aritu ziren Udarregi Ikastolako DBH 4. mailako ikasleak eta Gure Pakea elkarteko kideak, Oiardo Kiroldegian. Lehia giro ederrean elkar ezagutzeko jolasean bihurtu zuten guztiek. Taldeka antolatu ziren, heldu eta gazte denak elkar nahastuta, antolatuak zeuden jokoetan parte hartzeko.



EKIMEN HONI ESKER, ELKAR EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.

**GOIZ-PASA POLITA**

"DBH 4. mailako ikasleak eta Gure Pakea elkarteko kideak elkartu ziren"

Ezohiko topagune baten irudia da, aldamenean ageri dena. Gutxitan ikusi ahal izan dena; belaunaldi desberdinetako herritarrak ekimen baten inguruan bildu eta parte hartzen. Usurbilgo belaunaldien arteko elkar ezagutza bultzatzea zuen helburu, Udarregi Ikastolatik bideratu zuten ekitaldiak. Baina ez hori bakarrik. DBH 4.mailako ikasleak izan ziren goiz pasa horretako antolaketa lan guztia burutu zutenak. Eta hain zuzen, hori zen ikastolatik bultzatu nahi zutena; ikasleek iniziatiba, komunikazio eta antolaketa konpetentziak lantzea. Ekimen berri honek eman duenaren inguruko balorazioa egitekoak dira antolatzaileak. Goiz pasak izan duen harrerarekin pozik eta baikor agertu direla ikusita, ez litzateke harritzekoa esperientzi berri hau, aurrerago ere errepikatzea.

### Gure Pakeako bazkideen arteko txapelketen sariketa

Punttuan, tutean, musean, igel jokoan edota tokan lehiatzeko aukera izan dute asteotan, Gure Pakeako bazkideei zuzenduta Artzabalen egoitza duen elkarteak antolatu dituen txapelketetan. Lehiakideen artean sariak banatzeko garaia da orain. Ekitaldia, otsailaren 22an ospatuko da Artzabalen. Arratsaldeko 17:00etan hasita, sariak banatu eta luntx eder bat dastatzeko aukera izango da.

## Sabel dantza saioa, otsailaren 25ean

Sabel dantza ikasten dabiltzan Usurbil, Orio eta Zarautzeko taldeek emanaldia eskainiko dute otsailaren 25ean. Sutegiko auditorioan izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita.



SUTEGIN IZANGO DA SABEL DANTZA EMANALDIA, 17:00ETAN.

LATAILLADE ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8 , behea 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Hasieraz onartu dira 2012rako udal aurrekontuak

**10.982.729 euro, Kirol Patronatuko aurrekontua batuz gero, aurtengo egitasmoak bideratzeko guztira 11.363.702 euro izango ditu Usurbilgo Udalak. Otsailaren 8an deitua zegoen ezohiko osoko bilkuran onartu ziren hasieraz, 2012rako Udal Aurrekontuak. Proposamena, gobernu taldeak babestu zuen. Gainerako udal talde guztiek aurka bozkatu zuten. Orain, erabakia Iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunez jendaurrean jarriko da.**


SOILIK BILDUREN BABESA JASO ZUEN UDAL AURREKONTU PROIEKTUAK.

Otsailaren 1ean Bilduk udal aurrekontu proposamena herri eragileei aurkezteko Artzabalen deitu zuen bileran aurreratu zenez, gobernu taldeak hiru milioi eurotan murriztu ditu 2012ko udal aurrekontuak. Pertsonal gastuetara eta ondasun arrunten erosketetara bideratuko ditu diru-partida potoloenak; 3.630.845 euro eta 4.906.240 euro hurrenez hurren.

## Gastuen kontrola

Behar beharrezko inbertsioak baino ez dituela burutuko adierazi zuten Bilduko udal ordezkariek, hilabete hasierako aurkezpen saioan. Iragarri zutenez, Udarregi ikastolako eraikin berriko proiektua laguntzeko asmoa du Udalak. Zehazkiago esanda, Agerialdeko patioa birmoldatzeko 182.500 euroko diru partida bideratu asmo du Bilduk. 270.350 euro berriz, joan den azaroko uholdeetan kaltetu ziren herri bideak konpontzeko.

**SOILIK BILDUREN BABESAZ**

> "Aralar, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-EEk aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuten"

Diru partida nagusien artean, aipatzekoa bestalde, Mikel Laboa plaza frontoi atzeraino oinezkoentzat izateko burutuko diren lanen bigarren fasea. 153.000 euroko diru partida aurreikusi du gobernu taldeak, egitasmo honetarako. Herri merkataritza sustatzea izango du helburu.

Aipatutakoak dira, diru kopuru aldetik, 2012rako inbertsioen atalean Usurbilgo Udalak aurreikusten dituen diru-partida potoloenak. Aurrekontuon bidez, hiru milioi euro aurreztu asmo ditu Bilduk. Otsailaren 8ko ezohiko osoko bilkuran Mertxe Aizpurua alkateak gogorarazten zuenez, aurtengoak krisialdi ekonomikoaren testuinguruan kokatu beharreko udal aurrekontuak dira. Batez ere, aprobetxamendu urbanistikoan izan den beherakadak, foru fondoko murrizketak, eta uholdeek eragindako kalteak baldintzatutako proposamena zela adierazi zuen. "Gainean egotearen beharra dute" aurrekontuok, Aizpuruaren esanetan.

Gastuen kontrolaren jarraipena egiteko asmoa du beraz gobernu taldeak, egoerak zaila izaten jarraituko duela aurreikusten baitu Bilduk.

## Desadostasunak, % 0,7aren inguruan

2012ko udal aurrekontu proposamena babestu zuen bakarra izan zen gobernu taldea. Gainerako udal taldeek aurka bozkatu zuten. Aralarren kasuan, ekarpenak egiteko aukera eduki izanagatik gobernu taldea eskertu nahi izan zuen Eustakio Arrojeriak, "gehienak onartu dituzue" esanez. Aldiz, udal aurrekontuen aurka bozkatuko zutela iragarri zuen. "Printzipio kontuagatik" desados agertu zen Aralar, Bilduk garapen bidean diren herrialdeetara bideratuko den diru partiden ehunekoa jaitsi duelako, iaztik hona; %1etik, %0,7ra hain zuzen. 2011ko ehunekoa mantentzea eskatzen zuen Arrojeriak.

## Zalantzak, Atallu eta Txagañeta eremuekin

Beste hainbeste, Hamaikabatek ere. Aurrekontuen aurka bozkatuko zuela iragarri zuten. Taldeko bozeramaile Luismari Ormaetxeak, eurek ekarpenak aurkeztu arren, gehienak ez zirela onartuak izan zioen. Tartean, garapen bidean diren herrialdeetara bideratu beharreko diru partidaren ingurukoa legoke. Zalantzan jarri zituen bestalde, hileotan Atallun eta Txagañeta eremuei lotuta Udalak hartu dituen erabakiak. Kirol Patronatuaren bideragarritasun finantzarioa aztertzeko plan bat, hezkuntza alorreko azterketa eta enplegu programa propio bat izatea eskatu zuen Hamaikabatek.

Gizarte larrialdietara 70.000 euro bideratzea gutxiegi izan zitekeela ere gaineratu zuen Ormaetxeak.

## Kiroldegiko gastua

Gobernu taldeak EAJ-PNV-ren ekarpenak jasotzeko eginiko lana nabarmendu zuen jeltzaleen bozeramaile Andoni Atxegak. Edozein kasutan, aurrekontuen aurka bozkatuko zutela iragarri zuen. "Gure pentsatzeko eran onartezinak" dira, bere esanetan, Elkartasun Fondoa %0,7ra jaistea, langileen soldatak igotzea eta gehiegizkoa iruditzen zaie, Kiroldegiko 600.000 euroko gastua.

Ildo beretik, zenbait diru partidekiko desadostasuna agertuz, PSE-EE-ko ordezkari Ricardo Crespok aurrekontuen aurka bozkatzeko asmoa adierazi zuen. Garabidean diren herrialdeetarako diru partida murriztearekin desados agertu zen. Euskal preso politikoen senideei diru-laguntza ematea ez zuela babestuko adierazi zuen, nahiz desio zuenez, "espero dut, denbora laburrean, ia ez den beharrezkoa halako diru partida bat egotea". Eskola Publikoaren inguruan ere irtenbideren bat planteatzea komenigarritzat jo zuen.

### Lanketa ona egin da, gobernu taldearen arabera

Oposizioko taldeen adierazpenen ostean, zenbait argibide emateko Mertxe Aizpurua alkateak hartu zuen hitza. Hasteko, "ekarpenak ondo landu dira eta erantzuna eman zaie", zioen. Jarraian, onartezin eta ulertezintzat jo zituen, garabidean diren herrialdeetara bideratu beharreko diru partidaren inguruan Aralarrek eginiko adierazpenak. Eskubide osoa izan arren, udal aurrekontuei "ezezko botoa ematea arrazoi bakar horrengatik onartezin eta ulergaitza da" zioen Aizpuruak. Gobernu taldeak erabaki hau derrigortuta hartu duela gaineratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen eta Durangoren atzetik, alor honetan "ekarpen handiena ematen duena" Usurbil dela gogoraraztearekin batera.

### Oposizioak eskatutako auditoria

Gainerako adierazpenei erantzunez, gobernu taldeak egoki ikusi zuen oposiziotik eskaturiko auditoria, Alaitz Aizpurua zinegotziak zehaztu zuenez, "aurten ez, baina 2013an" egitea. Kirol Patronatuko bideragarritasun plana aurrera ateratzeko asmoa ere badu Bilduk, "neurri zuzentzaileak" planteatzeko. Eskola publikoaren gaia ere ahotan hartu zuen, euskara, kultura eta gazteria alorretako zinegotziak. Usurbilen sortu den guraso taldearekin bildu direla berri emateaz gain, gai honen inguruko azterketa egiteko asmoa dutela adierazi zuen. Baina ohartarazi zuenez, "beste kontu bat da, Udarregi Ikastolarekiko dugun konpromisoa zalantzan jartzea". Aizpuruaren esanetan, ikastolatik aspalditik datorren beharrari erantzuten jarraitu asmo du gobernu taldeak.

## Txagañetako Fitxaren Aldaketa Puntuala, ezeztatua

**Hirigintza alorrari loturiko erabaki bat ere hartu zen urtarrilaren 31ko osoko bilkuran. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Txagañeta izeneko S-4 Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren hasierako onespena ezeztatua geratu zen, udalbatzak gehiengo osoz hala erabaki ostean.**


TXAGAÑETA, AGINAGAKO ERRIBERAN DAGOEN SEKTOREA.

2011ko maiatzaren 17an udalbatzak harturiko akordioa ezeztatua geratu da beraz. Honenbestez, jendaurrean egon zen epean, iazko akordioaren aurka 12 lagunek aurkezturiko helegitea ere aintzat ez hartzea erabaki du udal ordezkarien gehiengoak.

## Kontratazio-Mahai Iraunkorra eratuko da

**Otsailaren 8ko ezohiko osoko bilkuran, udalbatzak Kontratazio-Mahai Iraunkorra osatzea onartu zuen aho batez. Gobernu taldeak komenigarritzat jo du halako proposamen bat egitea.**

Gai honi lotuta aurkeztu zen diktamenak jasotzen du zergatia: "Udalak sustatzen dituen kontratazio jardunbideak ugariak direla ikusita, prozedura guztiak antolatu eta Kontratazio-Mahaien konposaketa eta bilerak arautzea komenigarria ikusi da". Ez horregatik, bakarrik, udal ordezkari guztien babesa jaso zuen diktamenak aipatzen duenez, "era berean prozedura hauek ahalik eta partaidetza eta gardentasun maila handiena izan dezaten".

### Osaketa

Pertsonal Batzordetik igaro eta hilaren 8an udalbatzak aho batez onartu ostean, aipatu kontratazio mahaia modu honetan osatuko da:

-Lehendakaria: alkatea izango da. Ordezkoa, Alkateordea.

-Bokalak: gaiaren ardura duen batzordeburua, Udal Idazkaria, Udal Kontuhartzailea eta gaiari lotutako udal teknikaria izango dira.

-Idazkaria: Kontratazioko Udal Teknikaria izango da. Ordezkoa, idazkaritzako administraria.

Udal taldeek ere aipatu kontratazio mahaian parte hartzeko aukera izango dute. Talde bakoitzetik ordezkari bana, "soilik iritzia emateko aukera izango dutelarik". Bozka eskubiderik ez.

## Udal Lanpostuen Zerrenda ere, hasieraz onartua

Udal aurrekontuekin batera aurrera atera ohi dira baita, Udal Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa. Alde horretatik, 2012a ez da salbuespena izan; hasieraz onartu ziren, otsailaren 8ko ezohiko osoko bilkuran. Proposamena Bilduk babestu zuen, aurka bozkatu zuen Hamaikabatek eta Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariak abstenitu ziren. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Une horretatik aurrera, hamabost egunez erreklamazioak edo alegazioak aurkezteko aukera egongo da. Denbora tarte horretan halakorik ez balego, behin betikotzat onartuko dira Udal Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa.

# Inauteri mitologikoez mozorrotuko da herria

**Atzera kontua amaitzear da, aldizkari hau eskutan duzuenerako inauterietan murgiltzear izango gara. Ostiralean Udarregi Ikastolako ikasleen ikuskizunarekin ekingo zaio mozorro jaiari. Larunbatean, herriko Inauteri Festak jarraipena eman eta hilaren 21ean, Zumarteko abesbatzen kontzertu bereziak borobilduko du aurtengoa. Kaleko festa giroan murgiltzeko aitzakia nahikoa izango da beraz, asteburuan.**

Azken asteotako prestakizun lanak amaituta edo bukatzear beharko dute honez gero. Norbere etxean, lokaletan, garajeetan diseinaturiko mozorroari azken ukituak eman, probatu eta janzteko ordua heldu da. Larunbatean ospatuko da Inauteri Festa, mitologiaren inguruko mozorroekin aurten.

**FESTA UGARI LARUNBATEAN**

"Gaztelekukoek *Ilargi-Eguzki* festa ospatuko dute arratsaldez"

Denetariko pertsonaiak hezurmamituko dituzte usurbildarrek, deituak dauden kalejiretan. Emaitza, otsailaren 18an ikusiko da. Bezperan, ostiral honetan, Udarregi Ikastolako ikasleek emanaldia eskainiko dute Kiroldegian. Lehen Hezkuntzako ikasleek mitologia gaitzat hartuta, mozorrotuta agertuko dira Kiroldegira.

### Oparia, Zumartekoen eskutik

Aurtengo inauteriak berrikuntzekin datoz. Larunbateko festaren baitan, Gaztelekukoak ere mozorrotzekotan dira. Euren egoitzan bertan "Ilargi-Eguzki" festa ospatuko dute 12-16 urte arteko gazteek. Ez hori bakarrik. Otsailaren 21ean, datorren asteartean, Zumarte Musika Eskolako abesbatza taldeek kontzertu sorpresa eskainiko dute Sutegiko auditorioan. Ikustekoa izango da.



BATZUK ASPALDI HASI ZIREN PRESTAKETA LANEKIN.

## Ostiralean, Udarregiko ikasleen ikuskizuna

**10:20** LHko ikasleen desfilea eta dantza, Kaxkoan barrena. Ibilbideak:

-LH 1, 2, 3: Alperroburu, San Inazio, Barren-kale, Kale Nagusia, Erreka-Txiki, Puntapax, Bordatxoko errotonda, Kiroldegia.

-LH 4, 5, 6: Gernika ibilbidea, Zubiaurrenea, Kalezar, Belmonte, Puntapax, Bordatxoko errotonda, Kiroldegia.

**10:55** HHko haurrak Ikastolatik Kiroldegira jaitsiko dira.

**11:10** "Martxa" dantzatuz, LH eta DBH-ko ikasleak mailaka Kiroldegira sartuko dira.

**11:15-12:25** Inauteri Festako ikuskizuna.

Antolatzailea: Udarregi Ikastola.



DESFILEA ETA GERO KIROLDEGIAN ARITUKO DIRA.

## Larunbatean, egun osoko festa

**INAUTERI FESTA**
**Gaia: mitologia**

**12:30** Zumartxan txaranga Zumartetik abiatuta kalejiran.

**16:00** Ilargi-Eguzki Inauteri festa Gaztelekuan.

**18:00** Burrunbazale txarangaren kalejira.

**Gauean, afaria** Olarrondo jatetxean. Bertara, mozorrotuta joatea beharrezkoa izango da. Txartelak salgai otsailaren 16ra arte: Txiribogan, Irratin eta NOAUA!-ko egoitzan. Prezioa: 15 euro.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea, Gaztelekua, Zumarte Musika Eskola, herriko koadrilak.

## Zumarteko abesbatzen kontzertua

### Otsailak 21, asteartea

**18:00** Zumarte Txiki eta Zumarte abesbatzen kontzertu sorpresa Sutegin.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

# Diru-laguntza deialdiari gertuko jarraipena egingo dio Udalak

**Diru-laguntza deialdiak martxan daude jada; interesdun talde eta elkarteek, kultura eta gizarte-ongizate alorretako eskabideak otsailaren 27ra arte aurkez ditzakete. Kiroletakoak hilaren 29ra arte. Oraingoan, aldaketak txertatu ditu Udalak 2012ko kultur arloko diru-laguntza deialdietan.**

Aipatzekoa da batetik, kultur arloko deialdian, aldez aurretik Kultura Aholku Batzordean burutu dela oinarrien lanketa. Udaletik eginiko proposamenaren berri jaso eta ekarpenak egiteko aukera izan dute herriko kultur eragileek. Lanketa horretan, besteak beste, antolatzen diren hainbat ekitaldik Udalarenak ez diren diru-sarrerak izatea bultzatzea adostu da.

Aurkeztutako eskaera onartu zaien taldeek dagokien diru-laguntzaren %75a hasiera batean jasoko dute. Gainerako %25a zuriketak egin ondoren.

## Eragileen mugimendua, hazten

Kultur arloko diru-laguntzak banatzen hasi ziren 2005. urteaz geroztik, herri eragileen kopurua bikoiztu da. Orduan 14 izan ziren diru-laguntzetara aurkeztu ziren taldeak eta guztira, 76 ekintza antolatu zituzten.

2011n, aldiz, 28 izan ziren herri eragileak eta 117 antolatu zituzten ekitaldiak. Hori bai, Udaletik ohartarazi dutenez, "kudeaketa eta jarraipen zorrotza egitera behartuak gaude".

Zenbakietatik haratago, deialdiotara aurkezten diren herri eragileen aniztasuna ere azpimarratu beharra dago. Kultur adierazpen edo dinamika desberdinetako eragileak baitaude Usurbilen eta hori erabat aberasgarritzat jotzen dute Udaletik.

Diru-laguntza deialdion oinarrien inguruko informazio guztia, usurbil.net web orrialdean jaso daiteke.



KULTURAKO DIRULAGUNTZAK 27RA ARTE ESKA DAITEZKE. KIROLETAKOAK, 29RA ARTE.

**Tapak eta aurkibideak prest**

**2011**

**Agur esan diogu 2011 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2011ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.




**433-473 zenbakiak**

# Victor Gonzalez, goi mailako arrantza lehian

**Usurbilgo hileta-zerbitzuetako langilea dugu Victor Gonzalez herritarra. Baina ez dugu bere lanagatik elkarrizketatu, bere zaletasun nagusiagatik baizik; bere aisialdi tartean, arrantzalea baita. Goi mailako lehian dabilena gainera. Estatuko txapelketan parte hartu ahal izateko saioak prestatzen ari da orain. Horregatik, duen mailari eutsi eta lehen sei postuetan sailkatzea dira, egun dituen erronkak.**



TXIKITATIK DATORKIO ARRANTZARAKO ZALETASUNA.

**NOAUA! Nondik datorkizu arrantzarako zaletasuna?**

**Victor Gonzalez.** Umetan jada Donostiako portura joaten nintzen, korrokoiak arrantzatzera. Gero, Santixabeletan antolatzen ziren txapelketetan parte hartzen hasi nintzen. Tarte batez arrantza utzi ondoren, 17-18 urterekin txapelketetan murgiltzen joan nintzen. 20 urte nituenetik parte hartzen nabil Gipuzkoako Txapelketetan. Iaz, oso ondo aritu nintzen. Gipuzkoa mailan bederatzigarren postuan sailkatu nintzen eta zortzigarren, Euskadiko Txapelketan. Lehenago, hamaika edo hamabigarren geratu izan naiz.

**VICTOR GONZALEZ**

“Gipuzkoako Txapelketa zailagoa da, Estatu mailakoa baino. Hemen dagoen lehia handia da”

Lehen hamar postuetan sailkatu beharra zegoen, Euskadiko Txapelketan parte hartzeko. Iaz lortu nuen zortzigarren sailkatuta. Orain, estatu mailako ligan parte hartzeko aukera ematen duen maila goreneko lehian sartu naiz.

**N. Estatu mailako lehiara ailegatzear zara, beraz?**

**V. G.** Laster jokatuko ditut sailkapenerako txapelketak; martxoaren 3an Leitzaranen, apirilaren 1ean Araxesen, eta apirilaren 14an Leitzaranen berriz, baina Leitza aldean. Seigarren postuan sailkatu behar gara, uztaila amaieran estatu mailako euli-arrantzako txapelketan parte hartzeko. Estatu txapelketan hiru proba burutzen dira; bat ibaian, beste bi lakuan. Gu, hemen, lakuetan arrantza egitera ez gaude oso ohituta.

**N. Arrantza egiteko modalitate desberdinak daude, non kokatzen zara zu?**

**V. G.** Ibaietako arrantzan, hiru modalitate ditugu; bat, arrantzaldi arina; amu bizidunekin egiten dena (zizareak…); eta euli-arrantza, orain hemen ezagutzen hasi dena. Elbiak jarri behar ditugu metro desberdinetan, amuarrainak engainatu ahal izateko, kasu gehienetan, ur azalean jaten baitute. Ikusgarria da, elbia flotatzen eta amuarrainek elbia nola jaten duen ikusten duzu. Gipuzkoan, estatu eta mundu mailako txapeldun gehienak ditugu. Ondorioz, Gipuzkoa mailan lehiatzea oso zaila da. Diotenez, Gipuzkoako Txapelketa zailagoa da, estatu mailakoa baino, hemen dagoen lehia maila handia dela eta.

**N. Argi utzi beharra dago, arrantzan egin arren, arrainik ez duzuela hiltzen?**

**V. G.** Inoiz ez. Iaz, gure klubekoek 2000-2500 amuarrain aterako genituen uretatik, denak uretara itzuli ditugu. Ekosistemaren oreka mantentzeko modu bat da. Maila altuko hainbeste lehiaketa egingo balira, hainbeste amuarrain atereaz hain denbora gutxian, ibaiak amuarrain gabe utziko genituzke. Amuarrainak ugaltzeko aukera eman beharra dago.

## Arrantza, hara eta hona bidaiatzeko aitzakia

**NOAUA! Arrantzak bidaiatzeko aukera eman dizu?**

**Victor Gonzalez.** Txapelketa ofizialen ostean, estatu mailako zonalde desberdinetako saioetan parte hartzera gonbidatzen gaituzte; Andaluzia, Galizia, Herrialde Katalanak, Aragoi… Andoaingo nazioarteko txapelketara gonbidatu naute orain, munduko onenak datoz. Ezin ditut gonbidapen guztiak onartu, denbora eta diru aldetik baina Kantauri aldeko leku desberdinetan egon naiz. Horrek, txapelketei begira entrenatzeko aukera ematen digu. AEB-tan ere arrantza egiteko aukera izan dut. Hemen egun on batean, 20 amuarrain harrapatu daitezke, AEB-tan, 100-150 artean. AEB-tan hainbestekoa da ibaietan duten zaintza, leku gehienetan hil gabeko arrantza burutzen dute. Arrantzale bakoitzeko, eta eguneko bi amuarrain hiltzea bakarrik baimendua dago. Ondorioz, amuarrain populazioa izugarria da.

# “Ibaiak geroz eta egoera okerragoan daude”

**NOAUA! Arrantza egiteko legedia ere asko zorroztu da azken urteotan, zer aldaketa egon dira?**

**Victor Gonzalez.** Legedia okerrera doa. Ibaiak ez dira kontrolatzen ari, ez dira arrain birpopulatze lan ona egiten ari. Ondorioz, ibaiak geroz eta egoera okerragoan daude, kutsadura oso handia dago. Lehen, inguruotako ibai guztietan arrantzan egin genezakeen. Gaur egun, galarazita dugu leku gehienetan. Ibai askotan ezin dira hil arrainak, baina ez falta direlako, duten kutsadura handiagatik baizik, hil ostean ezin dira jan. Oria Euskal Herriko izokinen ibai onenetakoa da. Goiz batean 70 zenbatu genituen Orbeldin. Baina errumaniarrek izokinez beteriko poltsak eramaten dituzte. Federazioa deituta ere, ez dituzte neurriak hartzen. Leitzaran amuarrain populazio on bat mantentzen duen ibai bakarra da. Federazioak ez ditu bitartekoak jartzen, egoera hau gerarazteko.

**VICTOR GONZALEZ**

“Hamarkada bat barru, barboak arrantzatu beharko ditugu, amuarrainik ez baita geratuko”

Gipuzkoako ibai guztietan hil gabeko arrantza egitea nahi dugu guk. Baina badira, gure oso aurka dauden arrantzaleak. Momentuz gehiengoa dira. Azkenean, Nafarroan bezala, Gipuzkoan ere hiru urtez debekatu beharko da arrantza. Uste dugu, goiz edo beranduago, derrigorrez halako zerbait egin beharko dutela.



ESKURATU BERRI DUEN SARIA.

**N. Zer egin liteke, egoerak okerrera egin ez dezan?**

**V. G.** Asturiasen egiten ari direna. Ibaien gaineko kontrol oso ona egiten dute. Zaintzaile piloa dago, eta ibaiko zonalde asko, hil gabeko arrantzara eta arrainak birpopulatzera bideratzen dituzte. Hemen ez da halakorik egiten.

**N. Eta ibaiak ez dira zaintzen?**

**V. G.** Arrantzaleon artean esaten denez, hamarkada bat barru, barboak arrantzatu beharko ditugu, amuarrainik ez baita geratuko.

**N. Amurrainen espeziea desagertzeko arrisku egoera argian dago, beraz.**

**V. G.** Aurten, Nafarroan amuarrainen kopuruan gorakada egon da, baina azken hiru urteotan arrantza ez delako baimendua egon. Iaz ireki zen, amuarrain kopuru izugarria zegoen. Hil gabeko arrantza baimendu zen. Interneten hainbat elkarteetako irudietan ageri denez, hainbatek ibaietatik 120-140 amuarrain atera eta guztiak hil dituzte. Horrela, dena pikutara joango da. Hemendik kanpo arrantza egiteko aukera izan dugu eta gurearekiko dagoen diferentzia handia eta penagarria da. Egun, estatu mailan arrantzarako aipatzen den inguruotako ibai bakarra Leitzaran da.

## “Leitzaran eta Oiartzun, neure ibai gogokoenak”

**NOAUA! Batzuk pentsa dezakete, zer egiten duzun hainbeste denboran arrantzan. Zer esan horri?**

**Victor Gonzalez.** Proba dezala, euli-arrantza.

**N. Zergatik erakartzen dizu hainbeste arrantzak?**

**V. G.** Zerorrek bilatu behar dituzu amuarrainak, ibaian distantzia oso luzeetan ibili, korronteekin borrokatu, eta behin amuarraina lokalizatuta, elbia bere gainetik jarrita engainatu behar duzu. Ikusgarria da. Hori lortzera ailegatzerako, elbi piloa galtzen duzu, zuhaitz guztietan katigatzen zara. Hori da lotzen duena, duen zailtasunak eta zenbat mugitu behar zaren. Beste arrantza modalitate batzuetan ez bezala, euli-arrantzan ariketa itzela egiten da.

**N. Zein dira arrantzan aritzeko leku egokienak?**

**V. G.** Denok ezagutzen ditugun bi ibai; Leitzaran eta Oiartzun. Neure ibai gogokoenak dira, ibai ertain eta handien artean. Errio txikietan bestalde, populazio handiak egoten dira, bertan entrenatzen dut. Ez dut esango non, arrantzan ibiltzen diren gainerako lagunek ere ez dakite eta. Bakoitzak bere zonaldeak ditu. Baina Usurbildik irten ez eta amuarrain mordoa dagoela esan dezaket. 25-30 arrantzatu daitezke goiz batean. Leku ezagunak dira baina jendeak ez du uste hainbeste amuarrain egon daitekeenik.







## Lehenbailehen funtzionamenduan jarri nahi dute

# Aitzaga elkartearen egoitza

**Oharkabean iritsi zen albistea. Aitzaga elkartekoek, ordea, sei urteotan behin eta berriz luzatu dute elkartearen egoitza irekitzeko eskaera. Eta sei urteren ondoren, askatu ahal izan dituzte azkenean Aitzaga ixteko jarri zituzten kateak. Arantxa Manterolak eman dizkigu sei urteotako gorabeheren azalpenak.**

NOAUA! **Aitzaga ixteko argudio nagusia hauxe izan zen: bertan bilerak egiten zirela, Ezker Abertzalekoak alegia. Eta horregatik, sei urtez egon da itxita. Nolabaiteko baldintzarik jarri dute orain ireki ahal izateko ala eskuak libre ditu Aitzagak, itxi aurreko martxan jarraitzeko?**

**Arantxa Manterola.** Aitzagaren jarduera ez da inoiz debekatua izan. Jakina, egoitza ez izateak zailtasunak eragin dizkigu eta dinamika moteldua izan da baina, halere, urtero zenbait ekimen egiten jarraitu dugu (hitzaldiak, azaroaren 1eko azoka, mus txapelketa…).

### SEI URTEKO ITXIERAZ

“Elkarteari berari eragindakoaz gain, Usurbilgo dinamika sozialaren kalterako ere izan dela uste dugu”

**N. Urte hauetan guztietan, Aitzaga irekitzeko saiakerak egin al dira?**

**A. M.** Bai makina! Egindako eskaera gehienak erantzunik gabe geratu dira. Grande-Marlaska epaileak 2006ko otsailean itxiera agindu zuelarik, neurria bi urterako zen. Horiek igaro aurretik ere eskatu genuen irekiera baina, esan bezala, ez genuen ezta erantzunik jaso ere. Behin bi urteak gaindituta eta, beren legeak dioen bezala, luzapenik jakinarazi ez zigutenez, irekitzera gindoazela, bere horretan jarraitzeko agindua eman zuen Audientzia Nazionalak inolako argudiorik gabe. Baita Ertzaintza bidali ere egiaztatzeko itxirik segitzen zuela! Eta gure eskaerak gorabehera, horrela segitu du, “herriko tabernen” auzian katramilatua, ixteko aginduak horrekin zer ikusia ez bazuen ere. Audientziaren salbuespeneko jurisdikzioaren gehiegikerien beste adibidea izan da hau.



IREKI BERRI, AITZAGARA SARTZEKO GOGOZ ZIREN HERRITAR ASKO.

**N. Orain, sorpresaz hartu duzue erabakia ala espero al zenuten?**

**A. M.** Beno, sei urte pasa ondoren, ez da erabateko ustekabea izan. Gogoratu behar da horrelako neurri kautelarra gehienez ere bost urterako izaten dela baina, lehen esan bezala, hauek beren legeak ere ez dituzte errespetatzen. Hor dugu, adibiderako, Eginen kasua. Joan den uztailean irekitzeko eskaera berritu genion Audientziari. Jakina, hauek presarik gabe hartzen dituzte horrelakoak. Dena dela, azaroan fiskalari bere iritzia eskatu zioten eta hortik desblokeatu da asuntua.

**N. Jesus Mari Errekondok, Koldo Lizasok eta zuk epailearen aurrean deklaratu behar izan zenuten. "Kolaboratzaile" bezala inputatuak izan zineten. Zein egoeratan geratu da inputazio hori?**

**A. M.** Deklaratzera deitu gintuelarik ez genekien inputatu gisa egin zuenik. Han bertan enteratu ginen baina gure kontra ez da kargurik izan. Aitzagaren kontra hartu zuen neurria, lokal batek delitua egin izan balu bezala! Elkartea, berriz, ez da sekulan ilegalizatua izan.

## Indarberriturik ekiteko gogoz dira

NOAUA! **"Herriko tabernak" auziaren harira itxi zuten Aitzaga, eta beste biltoki batzuk. Usurbilen, zer galera suposatu du Aitzaga sei urtez itxita izateak?**

**Arantxa Manterola.** Elkarteari berari eragindakoaz gain, Usurbilgo dinamika sozialaren kalterako ere izan dela uste dugu. Izan ere, sorreratik taldeei eta herritarrei irekia izan den heinean, Aitzaga topagune, bilgune eta elkartrukerako toki aproposa zen. Urte hauetan guztietan jende askok esan digu kale hori zein triste zegoen.

**N. Aurrerantzean, zein asmo dituzue?**

**A. M.** Lehenbailehen irekitzea, noski. Txukunketa egin, funtzionamendua eguneratu eta Usurbilen eta Euskal Herrian aurrean ditugun erronkei, bereziki une politiko eta sozial honetan, indarberriturik ekitea.

# Herrira ekartzeko sortu da Herrira

**Euskal preso politikoen aurka ezarritako muturreko egoerak altxatzea izango da Herriraren lehentasuna. Usurbilen lanean ari den Egin Dezagun Bidea taldearen ildo berean egingo du lan.**

Sorreratik, beraz, asmoa berbera da. Aitor Landaluzeren esanetan, "herrian presoen inguruan dagoen egonezinaren aurrean sortu zen Egin Dezagun Bidea taldea. Baina izaera nazionala duen arazoa denez, indarra ere maila horretan egin nahi da Herrira ekimenaren bitartez".

### Lau helburu

Aitor Landaluzek izendatu dizkigu Herrira mugimenduak dituen lau helburu nagusiak: "lehena, euskal preso politikoei ezartzen zaizkien salbuespen neurriak bertan behera uztea. Bigarrena, euskal presoen kolektiboa Euskal Herrian batzea. Hirugarrenik, iheslariei prozesu demokratikoan partehartzeko aukerak irekitzea eta azkenik euskal preso eta iheslari guztiak etxeratzea".

Landaluzeren esanetan, "izaera eta ikusmolde ezberdinak batzen dira ekimen honen inguruan, Gernikako Akordioarekin bat eginik eta bertan ematen diren puntuei jarraituz".

### Gaia gizarteratzea

Hilabeteko azken ostiraleko ekitaldiekin jarraituko dute, "Egin Dezagun Bidean markatu dugun ildotik". Iazko urrian aldizkari honetan bertan azaldu ziguten moduan, "asmoa da gai hau gizarteratzea eta, hilabetero, herriko talde edo kolektibo ezberdinei azken ostiraleko elkarretaratzera gonbidatzea".

### Partehartzea, goruntz

Honez gero, senideak, ITAYAko gazteak, Bertso Eskolak Ziortzak zein Kantu Taldekoak Gabonetakoan... Hainbat talde izan dira egitasmo honekin bat egin dutenak. Eta igartzen dela dio Aitor Landaluzek, "azken elkarretaratzeetan jende gehiago bildu da. Horregatik, jendeari eskerrak eman nahi dizkiogu, gero eta erantzun hobea jasotzen ari garelako; bai azken bilkuretan eta baita urtarrilaren 7an Bilbon egin zen manifestazioan ere, usurbildarren asistentzia handia izan zelako". Landaluzek adierazi digunez, "inoiz ez da hainbeste herritar joan horrelako ekimen batera, autobusetan 200dik gora lagun joan ziren eta autoetan ere jende dexente joan zen".

Bukatzeko, Herrira taldea irekia dela esan digu eta "euskal preso politikoen eskubideak defendatzearren, aurrera begira, eragile politikoak eta sindikalak ere gonbidatu nahi ditugu".



Otsailaren 5ean aurkeztu zen Donostiako Kursaalen Herrira izeneko mugimendua.

## "Denok gara Herrira"

Herrira sortu da. Euskal Herrian hutsik dauden aulkiak betetzea da bere xedea. Zentzu honetan, helburu honekin bat egiten duten herritar guztiei espazio eraginkor bat eskaintzera gatoz, eremu ezberdinetatik eta konpromiso ezberdinekin, eginahal honetan ahalik eta indar gehien batzeko.

Gure helburuekiko aldekotasun jarrerak dituzten herritarrekin eta eremu guztiekin batera lan egin nahi dugu, hauei entzunez, elkarlana bultzatuz, mugimendu parte hartzaile eta zabal bat eratuz.

Gure helburuekiko aurkakotasun jarrerak dituzten herritarrekin eta eremu guztiekin ere lan egin nahi dugu. Hauen kontzientziak ukitu nahi ditugu, hauen jarrerak aldatu, gaurko aurkakotasunak biharko aldekotasun bihurtu daitezen.

Herrira sortu da. Hau ez da aktibista kopuru zehatz bateko mugimendua. Hau preso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetu nahi duen herri mugimendua da. Herrira gehiengo zabal baten nahia antolatzera dator, nahi hau mobilizazio bihurtzera, helburu hau egia izan dadin lan egitera. Herritarren ahotsa eta ekintza da Herrira. Denok gara Herrira.

**herrira.org web orrian jasoa**









# Manuel Lasarteren "Usurbil"

**Leitzako Franki baserrian jaio zen 1927an. 12 urterekin Aiara bizitzera joan zen, eta azken urtea Aretxabaletako adinekoen egoitzan egin zuen. Igandean hil zen 84 urterekin Manuel Lasarte bertsolaria. 17 urte zituela bertsotan hasi eta 40 urte inguru eman zituen plazaz plaza kantuan. Maiz aritu zen Usurbilen. Gustura izaten zen gure artean: "bertsoa errez ulertzen du bertako jendeak, euskeraz ongi dakielako", zioen *Kantuaren ordañez* (1997) izeneko liburuan.**

**Bertsolari ez ezik, idazle ere bazen eta hainbat liburu idatzi zituen: *Bertso mordoxka* (1970), *Gordean neuzkanak* (1975), *Enbor zarraren ezpalak* (1995), *Kantuaren ordañez* (1997), *Plaza-gizonak* (2005). *Kantuaren ordañez* (Auspoa, 1997) izeneko liburuan bada "Usurbil" izeneko kapitulua. Honela dio.**

"Usurbil erri maitagarria izan da gure garaiko bertsolari askorentzat, eta leengo batzuentzako ere bai noski. Adibidez, ni neroni sarritan kantatua naiz Usurbillen, Santuenen; eta erriko plazan batez ere, ta ostatuetan zer esanik ez. Bertsoa errez ulertzen du bertako jendeak, euskeraz ongi dakielako. Leenengo jan eta gero berriro ausnartu, mendian dabiltzan ardiak egin oi duten antzera. Orixe da gure izkuntzari laguntzeko modurik egokiena.

## SAN JOAN ESKEAN

"Illunabarrean, Usurbil partean asi ta urrengo goizean Kalexarren bukatzen genituen lanak"

Ni gaztetan bi edo iru urtetan San Joan eskean ibili nintzan koadrilla batekin San Joan bezperan. Gauez, illunabarrean, Usurbil partean asi ta urrengo goizean Kalexarren bukatzen genituen lanak.

Oillasko biltzea izaten zan diodan au garai artan. Oraingoz ez dakit iñork jarraitzen duen. Baiña soiñuz, panderoz eta bertsoz jendea alai jarri arazten saiatzen giñan, nola kalean, ala baserrietan.

Etxe batzuetan zai egoten ziran gaiñera, gu ate ondora noiz iritxiko. Borondate oneko pertsonak, batere dudarik gabe. Orduko izakeratik gaurko ontara badago alde ederra, nere ustez. Gaztetasuna eta sasoia, biak batera galtzeak dakarren gaitza da ori, guri gertatu zaiguna eta beste askorentzat etorriko dana leentxeago edo geroxeago.

Orain, au bere tokian utzita, gaia aldatu nai nuke izketarako. Juan Jose Alkain lruretagoiena Udarregi bertsolari zanaren mendeurrena ospatu zuten 1995-ean, urtearen asieratik iraillaren azkenera bitartean.

Aundikiro ospatu ere. Udaletxeko egitarauak zion bezela bete baldin baziran jaialdi guztiak, izango zan zer ikusia eta zer entzuna ugari.

Andik bialdu zidaten paperean gauza asko irakurri nituenez, dendenak idatzi bearrik ez neukala pentsatu nuen, nola albisteak aurrez emanak zeuzkaten Euskal Erri osoari. Baiña nik ere nere zorion agurra egin nai nion orain dala eun urte il zán Udarregi bertsolari sonatuari.

1966-an beste omenaldi bat eskeiñi omen zitzaion Usurbilko errian, bere irudia kalean jarri ziotenean ain zuzen. Gu bertsotan antxe jardun giñala gogoan daukat.

Eta azkeneko mendeurreneko ospakizunera ere deitu zidaten Batzordetik, bertso bat kantatzera eta lagunartean afaria egitera ea joateko moduan aurkitzen ote nintzan.

Pena aundia artu nuen, baiña ezezko erantzuna eman bear izan nioten. Nik kanpoan ibiltzeko ez det antsirik sentitzen. Usurbiltarrak ulertu zuten ori, ta Batzordearen izenean karta umil bat bialdu ere bai: bazekitela nere berri ta ez pentsatzeko aiekin gaizki gelditu nintzanik, ongi baizik. Eta besarkada bero bat eskeintzen zidaten denen partetik. Nik ere gauza bera opa diotet.



MANUEL LASARTE BERTSOLARIA (ARGAZKIA: ANDONI OTAMENDI).

Marrazki polita paperean norbaitek egiña etorri zan kartaren barruan. Neronek eskatu bainion telefonoz deitu zuenari, Udarregiri zegokion argibide bat eskuratzearren.

Baiña iñun ez omen da agertzen aren garaiko argazkirik, lastimagarria bada ere.

Juan Jose Alkain lruretagoiena, Aian jaiotako semea izan bear zuen bertsolari bikain onek. Baiña oso gazterik Usurbil aldera bizitzera joana adibidez. Nik ez nekien aiatarra zanik berez. Bertso baten asierako puntua sarritan entzuna naiz toki batzuetan, ta onela da:

*Juan Jose Udarregi*
*Usurbilko zana ...*

Jakiña, Usurbillen umetatik ezagutu zutenez, antxe sortua zalakoan egongo baizan jende guztia. Dana dala, ori oker txiki da, ta eskertzen ditut jai eratzaille denak. Biotzez agur!".

**Manuel Lasartek 1997an idatzia, *Kantuaren ordaiñez* liburuan.**

# Jardunaldi erabakigarria 2. nazionaleko eskubaloi taldearentzat

**Usurbil Kirol Elkartetik asteburuan Kiroldegira gerturatzeko gonbita luzatzen diete herritarrei, datorren jardunaldia erabakigarria izango baita seniorren 2.nazional mailako eskubaloi taldekoentzat. Horregatik aipatu kirol elkartetik, "zaletuei eta orokorrean usurbildar guztiei harmailak betetzeko dei bat egin nahi genieke, lau puntu garrantzitsuok Usurbildik alde ez egitea lortzeko". Bi neurketa jokatuko dituzte; lehenengoa larunbat arratsaldean, eta bigarrena, datorren asteartean, elurragatik atzeratutako neurketa da, hilaren 21ean izango dutena.**



Kiroldegira gerturatzeko gonbitea luzatu zaie zaletuei.

# Euskadiko Txapelketa jokatzeko judo taldeko bederatzi kide sailkatu dira

**Usurbil Judo Klubeko 9 kide sailkatu dira 17 urtez azpiko Euskadiko Txapelketa jokatzeko. Honako hauek, larunbat arratsaldean Lezon burutu zen jardunaldian.**

Zilarrezko dominak: -44 kg Paula Vicente, -48 kg Naroa Sanchez, -52 Kg Itsasne Arruabarrena, -55 kg Jon Rubio eta -73 kg Iker Nicolas.

Brontzezko dominak: -60 kg Nestor Laca eta -73 kg Peio Ruiz.

Urrezkoa: -66 kg Xabier Cazorla.

## Gipuzkoako Txapelketa

23 urtez azpikoen Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen baita, asteburuan Lezon. Hemen, sarituak:



Zilarrezko dominak: -52 kg Miriam Gonzalez, -66 kg Xabier Cazorla, -73 kg Alain Roman.

Brontzezkoak: -60 kg Nestor Laca,-66 kg Oier Lopez, -81 kg Beñat Aburuza.

Urrezkoak: -48 kg Eneritz Agoües, -52 kg Aiora Arrillaga, -57 kg Andrea Arruabarrena, -63 kg Maialen Zubeldia, -81 kg Andoni Cazorla.

## Kirol Patronatuak abonatuen ordezkaritza berrituko du

Bi urtez behin egin ohi den prozedura abian du Kirol Patronatuak; abonatuen ordezkaritza berritu asmo baitu. Horretarako egutegia ere finkatua dute jada. Honakoa da:

**Otsailak 1-15:** abonatuen behin-behineko zerrenda agerian jarriko da Oiardo Kiroldegian (usurbildarren 18 urtez gorakoena), akatsak zuzentzeko.

**Otsailak 22:** hautagaiak aurkezteko epea.

**Otsailak 24:** behin betiko abonatuen zerrenda eta hautagaiak onartzea eta iragartzea.

**Martxoak 1:** erreklamazioak egiteko azken eguna.

**Martxoak 9:** bozketa eguna.

Abonatuen ordezkaritza berrituko dela jakinarazteko eskutitz bana bidali zaie Oiardo Kiroldegiko bazkideei.

**2012/02/18,** larunbata
**Jubenil neskak, Euskal Liga. 16.30h**
Usurbil K.E. - Bera Bera
**Senior mutilak, 2. nazionala. 18.00h**
Atez Ate Usurbil - Loyola Indautxu

**2012/02/21,** asteartea
**(elurrarengatik atzeratua)**
**Senior mutilak, 2. nazionala. 18.30h**
Atez Ate Usurbil - El Pilar Marianistak











## Agenda

**Otsailak 15 asteazkena**
- Kultura Aholku Batzordea, 18:00etan Artzabalen.

**Otsailak 17 ostirala**
- **Inauteri Jaia** Udarregin (ikus 8. or).

**Otsailak 18 larunbata**
- **Inauteri Jaia** (ikus 8. or).

**Otsailak 21 asteartea**
- **Zumarteko abesbatzen kontzertua** 18:00etan Sutegin.

## Goardiako farmaziak

**Otsailak 16, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Otsailak 17, ostirala**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Otsailak 18, larunbata**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Otsailak 19, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Otsailak 20, astelehena**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Otsailak 21, asteartea**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Otsailak 22, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Otsailak 23, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Otsailak 24, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Otsailak 25, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Otsailak 26, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
*Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani*
*Telefono zenbakia: 943 552 087.*
*Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)*

# Bideokopla lehiaketa jarri da martxan

**Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta AEKren Praktikatu egitasmoak Bideokopla Lehiaketa jarri dute martxan. Lehiaketa, izenak berak dioen legez, bideo bat sortzean datza, koplak oinarri gisa hartuta. Kopla horien bidez, egileek "euskaraz bizitzeko nahia" adierazi beharko dute nahi duten eran. Doinua, libre.**



LANAK AURKEZTEKO EPEA MARTXOAREN 25EAN AMAITUKO DA.

Lehiaketa helduen euskalduntzeko zein mintzapraktika egitasmoetako edozein erakundetan dabiltzan taldeei zuzentzen zaie, baina bertsolari baten laguntza eduki dezakete, hala eskatuz gero. AEKren eta Bertsozale Elkartearen arteko hitzarmenari esker, Euskal Herri osoko bertso-eskolak prest egongo baitira euren laguntza behar duen edozein talderekin aritzeko.

Bideoan grabatutako kopla sortak praktikatuaek@gmail.com helbidera igorri beharko dira martxoaren 25a baino lehen. Saria talde irabazlearentzako bertso-bazkari edo afari bat izango da, bi bertsolarirekin batera, taldeak eta antolakuntzak adostutako jatetxe batean.

## Maria Elosegi eta Amaiur Caballero sari banarekin itzuli ziren Andoaingo Piano Jaialditik






Andoaingo Piano Jaialdian Zumarte Musika Eskolatik joandako bi ikasleak, Maria Elosegi Azurmendik eta Amaiur Caballero Eizagirrek, zilarrezko domina eta diploma bana lortu zuten. Argazkian ageri dira biak, Zumarten sariak erakusten. Zorionak!

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

### Etxebizitza

- Pisu bat alokatzen da. Bi gelakoa, San Esteban bidean. 609 413 883.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Pisu bat alokatzen da Lasarten: 943365427. M. Jesus.
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailean. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

### Salerosketak / garajeak

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro karratukoa.Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
-Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
-Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
-Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685772602 // 943371277.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Hemengo babarruna salgai, artoarekin batera egindakoa: 637 974 994.
- Proba ezazu modan dagoen kirola padel!! Klase bat doan. Irakasle tituladunak 667438145.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48
- Arratoi mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdikoa, oso leiala. 666 454 930
- 3 metrotako bambu kañaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.
- Buru gorridun lorito berde bat falta zait, urtarrila erdialdeaz geroztik. Aurkitu baduzu deitu: 666 177 913.



**Zorionak bikote!!**
Anderrek otsailaren 8an 14 urte, eta Ionek otsailaren 14an 16 urte bete dituzue. Muxu asko asko!



**Zorionak Julen!**
Otsailaren 14an 7 urte! Muxu handi bat Ane, guraso eta familia guztiaren partez!



**Zorionak Mañel!** 4 urte egin dituzu iada! Muxuak etxekoen partez.



**Zorionak Nahia!**
Otsailaren 19an 5 urte! Muxu handi bat Zuhaitz eta etxekoen partez

### Hildakoak



**Jose Agustin Ugarte Zinkunegi**
77 urterekin hil zen otsailaren 12an, Usurbilen



**Juan Larrañaga Jaureguialzo**
89 urterekin hil zen, Zubietan

### Hildakoak



**Josefa Mendizabal Altuna**
82 urterekin hil zen otsailaren 10ean, Usurbilen



**Fernando Loiti Elorza**
91 urterekin hil zen otsailaren 10ean, Usurbilen

# Osasun Gida 2011


USURBIL OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ✆ 943 370 269 •675 708 654

50€-ko BALEA

BETAURREKO PROGRESIBOETAN (HOYA)

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol masajea
·Masaje terapeutikoa
·Kolonaren hidroterapia (idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

iturralde botika
Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

✓ Maisu formulak
✓ Dermofarmazia
✓ Produktu Homeopatikoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL


Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 publizitatea@noaua.com

# TXOTX!!


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
AIALDE
BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu – Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Sagardo
ekologikoa
Arratzain Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxa: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com